

2017ko MAIATZAREN 11ko OHIKO OSOKO BILKURAREN LABURPENA

1.- Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.

2017/04/06ko akta onetsi da

Agrupacion Ultzama Taldearen eskutik, beraien ordezkari den Erviti zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du alkatetzaren informazioaren puntuan, bere aldetik Nafarroako prentsa egunkarietako argitarapenei dagozkien gastuei buruzko txosten juridiko bat eskatu zuela, horretaz gain legezkotasun txosten bat nahi zuela aipaturiko iragarkiak argitaratu diren komunikabide zehatzei buruz. Honi buruz idazkariak erantzun dio aktarako zuzenketa hau idatziko duela eta txosten hori egingo duela bere eginbeharrek eta lanek uzten diotenean.

2. Behin betiko onestea 2016ko Ekitaldiaren Kontuen Espedientea.

Alkateak gaia azaldu du.

Agrupacion Ultzama Taldearen eskutik, beraien ordezkari den Erviti zinegotziak hartu du hitza eta 2016ko ekitaldiaren kontuen espedienteari buruz, legea jarraituz tramitatu eta onartu dela, eta adierazi du bere taldearen partetik ez dituztela aurrekontuetako gastu batzuekin bat etortzen, baina hori beste kontu bat dela.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- 2016ko ekitaldiaren kontuen espedientea behin betiko onartzea.

Aipaturiko espedientean honako zenbateko hauek agertzen dira: 1.522.857,33 euroko aitortutako obligazio garbiak, 245.367,28 euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina eta 96.553,9 euroko aurrekontu emaitza doitua.

3. Honako ezaugarriak dituen oihan aprobetxamendu bat besterentzeko espedientea: 3.488 LARITZ eta IZEI GORRI, POIONE-ARRITZORROTZ alderdian, (73d, 131a, 133b, 134bc, 135bc eta 136b unadak) 2.401m³ zur eta 600 m³ enbor txiki/adaburu egiten ditu eta Ultzamako Hermendiko Mortua mendian 2016an aprobetxamenduak eta hobekuntzak egiteko urteko planari (II. fasea) dagokio (Nafarroako erabilera publikoko mendien katalogoan 631. zenbakia duena). Esleitzeko erabakia.

4. Honako ezaugarriak dituen oihan aprobetxamendu bat besterentzeko espedientea: 1.581 PAGO, ISASTI-SASO ZAHAR alderdian (119a unada), 271m³ zur eta 1.419 m³ enbor txiki/adaburu egiten ditu eta Ultzamako Hermendiko Mortua mendian 2016an aprobetxamenduak eta hobekuntzak egiteko urteko planari (II. fasea) dagokio (Nafarroako erabilera publikoko mendien katalogoan 631. zenbakia duena). Esleitzeko erabakia.

Gai zerrendako bi puntu hauen antzekotasunagatik hauen eztabaida eta onespren bateratua egitea proposatu eta hitzartu da. Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Aho batez erabaki da.

3- LEHENA.- Oihan aprobetxamendu esleipenari ekitea EXPLOTACIONES FORESTALES ALHAMA SL kontratistaren alde, hirurogehita hamabi mila eta hirurogehita hamabi euroko (72.072€) zenbatekoagatik gehi dagokion % 12ko BEZa.

4- LEHENA.- Oihan aprobetxamendu esleipenari ekitea JUAN MANUEL ARANGO AGUIRRE kontratistaren alde, hogeita hamahiru mila eta zortzirehun euroko zenbatekoagatik (33.800€) gehi dagokion % 12ko BEZa.

Jarraian Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta EKILAIN SL Udalaren basogintzako aholkulari teknikoak landu duen txostenaren edukiaren gainean, aipatu du baso antolamendu planaren arabera atera behar den egur bolumenari dagokionez, ez daudela konforme ateratzea aurreikusita dagoen bolumenarekin, eta azken urte hauetan ikusten den moduan, ateratze bolumen horren igoera bat egon da abisatu zuten bezala.

Gai honen inguruan EH Bildu Udal taleko Picabea zinegotziak erantzun dio, 2011 baino lehenagoko planak zituen irizpideetan kontu hori ematen zela, baina aurreko planean bai markatzen zela zehazki atera beharreko egur kantitatea eta noiz atera behar zen, plan berri honek ez du horrelakorik esaten, mendiaren mantenimenturako erreparatu beharreko eremuei buruz hitz egiten du, eta gainera plan berri hau gehiengoarekin onartu da.

5. Ultzamako Larraintzarko Ikastetxeko eraikina eta instalazioak garbitzeko laguntza tekniko kontratatzeko bigarren espedientea. Baldintza ekonomiko eta administratiboen plegua onestea, baita Baldintza teknikoen eta espediente horretan aurreikusitako izapidetze eta prozedura ere.

Alkateak gaia azaldu du.

Idazkariak puntu hau eguneko gai zerrendan sartzearen, onesprenaren gainean eta espediente berri baten tramitazioaren azalpenak eman dizkie korporazioko kideei. Behin kontratazio hau esleituta eta 2016ko abenduko osoko bilkuran onartuta, bigarren postuan geratu zen eskaintzaileak -Limpiezas Amadoz- esleipen horren kontrato errekurtsua ezarri zuen Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazioa auzitegiaren aurrean. Errekurtsio honek ez du abokatu eta prokuradorerik behar eta doakoa da. Aipaturiko eskaintzaileak aurkeztu zuen errekurtsuaren idazkian, kontratazioa zuzentzen zuen baldintzen agiria akastuna eta zehaztugabea zela argudiatzen da eta batez ere proposamen teknikoak balioesteko orduan ez zegoela justifikazio nahikorik espedientean, hau, esleipenaren objektibotasunaren eta egondako proposamen desberdinen balioesprenaren onerako ezinbesteko baldintza izanik. Azkenik Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio auzitegiak errekurtsua jarri duen

eskaintzailearen aldeko epaia egin du, ez pleguan akatsak zeudelako baizik eta proposamen teknikoak balioesteko orduan kontratazio mahaiaren parte izateko aukeratutako teknikariak ez zuelako aipaturiko balioespenak sotengatzen zituen eta batzuen eta besteen arteko puntuazio desberdinak justifikatzen zituen txostenik egin.

Honen arabera kontratazio espedientea berriro landu da eta baldintza agiri bera mantendu da, errekurso posibleak saihesteko hobekuntza batzuk egin arren, eta udalari lan-aholkularitza eskeintzen dion enpresako kide bat kontratazio mahaiari sartu da "batzordekide tekniko" bezala –Ortiz de Elguea y Asociados- eta jasotzen diren eskaintza teknikoaren puntuazioak justifikatzen dituen balioespeneko txosten bat egiteko konpromisoa hartu du.

Aho batez erabaki da.

6. *Ultzamako NA-10.206 EHIZA BARRUTIA berritzeko erabakia, eta bidezkoak diren beste erabakiak.*

Lehenik eta behin, EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak kontu honen xehetasunak azaldu dizkie gainerako zinegotziei, Zinegetika plan antolamendu berria egiten joan dadila eskatu zaio biologo bati jada eta berehala amaituta egotea espero da bere onespenerako eta Nafarroako Gobernura eramateko, kontzeju guztiei mezu bat bidali zaie beraien komunalak kotoaren eremuan sartzea onartzeko., eta abar. Orain, lehen akordio honekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta beste komunikabide batzuetan iragarkiak argitaratuko dira kotoaren eremuan sartu nahi ez duten lurjabeek horrela eska dezaten.

Aho batez erabaki da.

7. *Bailarako kontzejuei 2016-2017 aldian EHIZA BARRUTIAN bildutako diruarengatik egin beharreko ekarpena onestea.*

Alkateak gaia azaldu du laburki.

Aho batez erabaki da.

8. *Larraitzarko Benta Zentro Zibikoko garbiketa, atezaintza eta taberna zerbitzua kontratatzeke espedientea Espedienteari hasiera emateko erabakia hartzea, eta Baldintza Administrazioen Plegua eta espediente horretan aurreikusitako izapidetze eta prozedura onestea.*

Alkateak gaia azaldu du laburki. Gauzak horrela, gaur egungo kontratua ekainean amaitzen dela adierazi du eta horregatik beharrezkoa dela berriro ateratzea baina seguraski maizter berria irailerarte ez da hasiko zentro zibikoa abuztuan itxita baitago.

Jarraian baldintza-agirian zuzendu beharreko kontu eta xehetasun ezberdinak aipatu dira: aurreikusitako gastua 11.500 eurokoa da, kontratazio mahaiaren parte diren hainbat Udalen Alkateen izenak, eta abar.

Aho batez erabaki da.

9. Erroldako kopuruak berritzea eta 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldako kopuruaren zenbakizko laburpenak onestea.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute.

Aho batez erabaki da.

10. Diru-laguntza deialdia, irabazi asmorik gabeko elkarte eta partikularrek 2017. urtean eginiko arte-, kultura- eta kirol-jarduerendako.

Alkateak gaia azaldu du.

Jarraian oinarrien edukari buruz argibide batzuk eman dira eta oinarrietako testuan agertzen diren bi esaldi zuzendu dira. Honi buruz, EH Bildu taldeko Etxeberria zinegotziak komentatu du helburua kulturaren sormenari eta kirolaren sustapenari bultzada bat ematea dela eta, hori dela eta, oinarririk hauek beritasunak dituztela aurreko urtekoekin alderatuta, ezberdintasuna bereziki, berrikuntza eta sormena egon dadila dela, edo "plus" ezberdinen bat izan dezala.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti eta Herranz zinegotziak hartu dute hitza eta zalantzan jarri dute betidanik praktikatzeko diren kirolei dagokien berrikuntzarik aurki ote daitekeen eta adierazi dute ez datozela bat kirol batek ondo funtzionatzen badu, laguntzetatik kanpo geratzearekin; eta, beraz, ez duela inongo berrikuntzarik planteatzen; eta, bukatzeko, berrikuntza edo sormena balioesteko kirolaren kasuan "plus" edo balioesteko meritu gisa jarriko zutela, baina ez ezinbesteko gisa inongo kirolik ez dadin laguntzetatik kanpo geratu.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun die berrikuntzaren kontua kultura ekintzetan bakarrik eskatzen dela baina ez kiroleko jardueretan. Beraz, hauetan bai emango direla puntu gehiago berrikuntza edo sormen handiagoa badago, baina ez da ezinbestekoa. Hau guztiarekin, amaitzeko esan du posiblea dela aurkitzea, genero berdintasun materiako praktikak sartuz adibidez...

Aho batez erabaki da.

11. Hasiara batez (2.) onestea Lizasoko 2. poligonoko 3039 eta 338 lurtzatietan dagoen ULZAMA Granja-eskola Fundazioarendako plan bereziaren espedientea.

Idazkariak azaldu du zergatik sartu den puntu hau eguneko gai zerrendan eta zergatik onetsi den; izan ere, garatu nahi dituzten instalazioak etengabe egiten joan beharra dagoenez eta Nafarroako Gobernuaren eta teknikoen gomendioari jarraikiz, 2017ko urrian Baserri eskolako sustatzaileek planteatu zuten aipaturiko ingurunea xehetasunez arautuko zuen eta eskolari dagozkien instalazioak egitea ahalbideratuko duen Plan Bereziaren espedientea izapidetzea eta onestea, kontuan harturik instalazio horiek nolabaiteko berezitasuna dutela, garatu nahi den jarduera dela-eta: Baserri eskola, animaliekin eta batez ere umeendako edo ezgaitasuna duten pertsonendako, ekitaldiak egiteko aukera, kanpamentuak, jardunaldiak eta abar. Plan berezi hau Udalak hasiera batean onetsi zuen osoko bilkuran eta departamentuari igorri zitzaion behin behineko onesteko; hala ere, handik jakinarazi zuten aldaketa batzuk egitea beharrezkoa zela, baita dokumentazio gehiago igortzea (azpiegituren eta zerbitzuek ahalmenaren gaineko txostenak..) eta hasiera batean onetsi baino lehen "parte-hartze plana" izena duen tresna berria tramitatzea. Beste alde batetik, tramite horiek guztiak egiten ari dira jada, dokumentazio gehiago aurkeztu da, txostenak igorri dira eta Parte-hartze plana garatu da; hortaz, ez dago arazorik plan berezia onesteko erabakia berriz hartzeko, orain jada osatuta... Nolanahi ere den, sustatzaileek premia handiago dute orain aterpetxe bat eraikitzeko obra lizentzia izateko,, eta lurzoru ez urbanizagarriko sailaren aldeko txostena behar du, aipaturiko plan berezia tramitatzen ari den bitartean eman ezin dena.

Gauzak horrela, sustatzaileak obra lizentzia lehenbailehen lortzeko beharra dela eta, nahiago dute une honetan espediente hau alde batera utzi eta aipaturiko aldeko txostena ematen dietenean (eta ondoriozko obra lizentzia) berriro ere hastea.

Gauzak horrela, espedientea mahai gainean geratzen da hurrengo osoko bilkura batean tratatzeko.

12. Hasiera batez onestea Ultzamako Udaleko Udal Esparruan Euskararen Erabilera eta Sustapena arautzen duen ordenantza.

Alkateak gaia azaldu du laburki.

Gai honen inguruan Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta eguneko gai zerrendako puntu honi dagokionez bere Udal taldearen aurkako botoa iragarri du ados ez egoteagatik.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren

- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

13. Bigarren aldiz behin betiko onestea abeltzaintzako mindan oinarriturik argindarra ekoizteko Iraizozko (Ultzama) 12. poligonoko 159. lurzatiko A azpiluzatian kokaturiko planta eta Iraizotz, Gorrontz-Olano, Suarbe, Auza eta Orokietako kontzejutan minda digerituak bildegiratzeko bortz hobi egiteko obra publikoaren eta geroko ustiapenaren kontzesiorako kontratua amaitzeko espedientea. Behin betiko onestea administrazio kontzesioaren kontratuarekin loturiko AKTIBOEN balorazioari dagokion BIGARREN puntua.

Alkateak eta Idazkariak gaia azaldu dute laburki.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta bere Udal taldearen aurkako botoa iragarri du eta plantaren kudeaketa lehenbailehen berriro ere konkurtsora ateratzeko eskatu du honen aktiboak ez daitezen gehiago hondatu, Comptoseko Ganbarak aholkatu duen bezala.

Honen inguruan Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio lehenbizikoa eta beharrezkoa aktiboen balioespena egitea dela, Comptoseko Ganbarak bere txostenean ere esan duen bezala.

Halaber, EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak gai honen inguruko aurkako botoa dela eta bere harridura adierazi du, abenduko Osoko Bilkuran gai hau hasiera batean onartu zenean aldeko botoa eman baitzuten... honi Agrupacion Ultzama taldeko Erviti zinegotziak erantzun dio ez dutela kontu honen gaineko eztabaidetan sartu nahi orain.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren

- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

14. Berraztertze errekurtsoa jartzeko erabakia onestea, Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiak martxoaren 9an emandako 337/2017 Ebazpenaren kontra. Ebazpena Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiak urtarrilaren 17an emandako 3E/2011 eta 2012ko urtarrilaren 20an emandako 12E/2012 ebazpenen bidez ordaindutako 216.291,40 euroko diru-laguntza gehi berandutze-interesengatik ordaindu beharreko 44.159,74 euro itzultzeko espedienteari dagokio.

Alkateak gaia azaldu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du beraien aldetik alde bozkatu behar dutela helburua ez baita ez Udaletxea ezta Ultzama kaltetzea baina hau jasota geratu dadila nahi dutela,

bere Udal taldetik Osoko Bilkuretan hainbat alditan abixatu zutela hau gertatu zitekeela eta hau erabaki baten ondorioa dela.

Gai honen inguruan Martinez Urionabarrenechea Alkateak adierazi dio hurrengo eguneko gai zerrendako puntuan erantzungo zaiola.

Aho batez erabaki da.

15. EH Bildu Ultzama udal taldearen mozioa, Agrupación Ulzama udal taldeko Francisco Perez Arregui zinegotziak udaleko zinegotzi gisa dimisioa eman dezan eskatzeko.

Lehenik eta behin Alkateak gainerako korporazioko kideei idazki bat irakurri die, zinegotzi honen dimisioa emateko eskaeraren arrazoiak adierazten diren idazkia, honako zentzuarekin: EH Bilduk Patxi Perezek bere zinegotzi karguaren berehalako dimisioa eskatzearen arrazoiak begibistakoak dira Comptoseko Ganbararen txosten larriaren aurrean. Entitate independente bat dela azpimarratu behar da. Puntu larrienak aipatu behar dira. Txostenean, Udal honek egindako irregulartasun ugarietz hitz egiten da. Ezarritako prozedura baztertu zela seinalatzen da eta ez ziren kontratazio oinarritzko printzipioak errespetatu, publizitatea, gardentasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminazio eza bezalakoak. Lan-amaiera ziurtagiri falta islatuta geratzen da baita ere, eta behin betiko bermeko prestazioa ez da agertzen. Espedienteak lanak egin eta ondoren formalizatu zirela ere jasotzen da, aurreko kontratazio irregularrari estaldura formala emateko. Txostenak esaten du baita ere kontratazio mahaiko bi kidek proiektua idatzi zuen ingeniari enpresa errepresentatzen zutela, adjudikazioduna izaten amaitu zuen entitateak plantaren eskema bera sartu zuela, eta gainera, enpresa hau kontzesioa eman zitzaion entitatearen parte izatera pasatu zen. Adjudikaziodun enpresaren, lagapen-hartzailearen eta Udalaren arteko fakturazio sistema gurutzatu bat diseinatu zen, lagapen hartzaileak, baimenaren eta lagapenaren formalizazioaren aurretik jada fakturak igortzen zizkion. Argi geratzen da Udalaren aldetik proiektuaren segimendu eta kontrol eza. Akats, irregulartasun eta ilegaltasun posible asko dira erantzukizunik ez onartzeko edo baloik kanpora botatzeko. Kontzeptu berdinegatik faktura bikoitzak antzematea oso larria da. Proiektuaren sustatzailea Patxi Perez izan zen, alkatea izan zen garai guzti horretan eta bera izan zen hau konpobide onena bezala saldu zuena bai komunikabideetan eta baita inaugurazio egunean ere. Baina, kudeaketa ezin okerragoa izan da, proiektu honetan irregulartasun asko egon dira eta ez dira arautegiak bete, ez zen proiektuaren kontrol egokia egin, ezta dokumentazioarena, ezta plantaren kudeaketarena udalaren aldetik, eta horregatik, bere buruari dominak jarri zizkion bezala, erantzukizunak onartu beharko lituzke eta dimisioa eman. Proiektuak ere bere kudeaketa txarrak oso leku txarrean uzten du Ultzamako Udala, eta egoera oso korapilatsuan.

Jarraian Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta eguneko gai zerrendako puntu honen gaineko bere taldearen aurkako botoa iragarri du eta baieztapen hauen aurka honako hau esan du: Comptoseko Ganbaren txostena fiskaltzara eraman behar da eta handik ikertuko dute egokia dena, horregatik ezer argi ez dagoen bitartean bere

taldetik Perez Arregui zinegotziaren ustezko errugabetasuna babesten dute. Plantaren inguruko akordioak Ultzamako korporazioaren Osoko Bilkurak hartu zituen gehiengo osoarekin. Garai hartako Udaletxeko teknikoek partetik ez dago inongo momentutan jokatu zen moduaren aurkako txostenik.

Kontraesan garrantzitsuak daude Ganberako txostenean lehenbizi lan-amaiera ziurtagiririk ez dagoela esaten du baina azkenean irekitzeko lizentziarako aurkeztutako dokumentazioan badagoela aitortzen da. Hori dela eta fiskaltzaren jokaera ikustera itzarotea nahiago dute, eta hortik aurrera, ondorioak ikusita behar bezala jokatu dute... eta beraz ez dute Perez Arregui zinegotzia jada epaitzeko eskubiderik.

Gai honen inguruan Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio Udalaren Osoko Bilkurak plantaren ehuneko ehuna eraikitzea onartu zuen horrela abeltzainen baserrietako mindekin zituzten arazoiei konponbide bat emateko baina ez zuen honen ondorengo kudeaketa onartu eta aldi berean adierazi dio bere aldetik ez dutela Perez Arregui epaitzen, Fiskaltzari igorri zaion Comptoseko Ganbararen txostenak dioena azpimarratzera mugatzen dira. Amaitzeko esan dio Ganbaren txostena plantaren bahiketa egitearen erabakiarekin kritikoa dela.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza berriro eta kontu hauei erantzun die seinatuz kasu honetan ez dela errugabetasun-printzipioa errespetatzen ari, espedientearen kontu-ikuskariak balioetsi eta kontuan hartu ez duten dokumentazioa dagoela, azken txostena ez dela erabat objektiboa, eta sinesgaitza dela plantaren errentagarritasun galeraren kausa handienaz ia ez hitzegitea, Gobernu Zentralak energia berriztagarrientzako prima ekonomikoa jaistearen ondorioa izan zena. Kontu honekin Munduko Bankuaren txosten bati buruzko oraintsu argitaratutako artikulu bati egiten dio erreferentzia eta esaten du Espainiar Estatuak Holandako enpresa baten aurkako auzi bat galdu duela eta diru kantitate oso handia itzuli behar diola energia berriztagarriei orduan eman zitzaizkien primak kenteagatik, zein Estatuarentzat ordainketa handi bat izango litzatekeen eta hori da Ultzamako plantarekin gertatu dena. Bukatzeko esan du gainera, planta ez balitz bahitu diru-laguntza kantitate handiagoa itzuli beharko litzatekeela, eta EH Bildu taldea izan dela bahiketa amaitzerakoan eta planta denbora baino lehen ixterakoan egoera hau eragin duena.

EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak nabarmendu du orain ez dela tratatzen denaren kontua desbideratu behar plantaren errentagarritasunarekin nahasiz eta eskatzen dena Perez Arregui zinegotziaren dimisioa dela, alkate bezala izandako jokaeragatik Comptos Ganbararen txostenean agerian jartzen den bezala.

Berriro, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak nabarmendu du, Comptos Ganbararen txostenaren puntuetako batean esaten dela aktibo bera ordaintzeko ezin dela diru-laguntzarik jaso, eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioako Departamentuaren kontseilariak bere alegazioetan adierazi du bere departamentuak zuzen jokatu zuela eta Udalari aipaturiko diru-laguntzak zuzenki eman zizkiola.

Jarraian Agrupacion Ultzama taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza eta gainontzeko konporazioko kideei idazki bat irakurri die eguneko gai zerrendako puntu honen aurkako botoaren defentsa arrazoiak adieraziz, honako hauek izanik: Mozio honen aurrean, Agrupacion Ultzamak (AU) bere erabateko ezetza erakus dezake soilik. Mozio honek ez dio EH Bildu taldearen kasketa politikoa izateari uzten, plantaren bere kudeaketa ezin okerragoa ezkututzen saiatzeko. Kaka botatzen saiatzen da gainera, EH Bildu bera izan denean planta itxi duena, nahiz eta AUtik ohartarazpen ugari eman izan dizkiegun.

Hemendik gure babes adierazi nahi diogu Patxi Perezi eta denbora askoan jarraituko duela espero dugu. Nahikoa da azkeneko hamar urtetan Ultzamako haranak eman duen aldaketa errepasatzea Ultzamak harekin alkate bezala izan duen aurrerabidea ikusteko. Comptoseko txosten batean babestuta patetikoa da EH Bilduk Agrupacio honetako kide baten dimisioa eskatzea, txostenean bere izena inongo momentutan agertzen ez denean. Aitzitik, lau aldiz behintzat agertzen dena da planta ez zitzaiola euro bakar bat ere kostatu ez Ultzamako Udalari ezta Ultzamarrei ere.

Txostenak argi uzten du abeltzainak bere mindaren arazoekin jarraitzen dutela eta konponbie bat bilatzera premiatzen da. Onartezina da EH Bilduk prentsaurreko bat antolatzea errentagarritasun politikoa ateratzeko, baina ez konponbide hori nola aurkituko duten azaltzeko, eta abeltzainen arazoak konpondu.

EH Bilduk 2016ko hasieran enpresa batek idatziz Ultzamako plantarengatik zuen interesa ezkutatu zuen. Hau al da arazoak konpondu nahi izatea? Hau al da gardentasuna? EH Bilduk gezurra esaten du plantak konponbiderik ez duela esaten duenean, eta hau ez du soilik AUK esaten.

Plantak sektorearen interesa ekartzen zuen eta ekartzen du, baina EH Bilduk ixtea erabaki zuen eta itxita mantentzen du, bere kudeaketak udala porrotera eramango duela jakin arren.

Sentitzen dugu EH Bildu Ultzamak, Ultzamako interesak defendatzetik hurrin, bere alderdiaren interes politikoetara tolestu izana, bailara honen oraina eta geroa ezer inporta ez zaiona.

Nahiz eta gezur asko errepikatu, egia bat bakarra dago: planta abeltzainen arazo erreal bat eta minden kudeaketa konpontzeko egin zen. Talde politiko guztien artean aho batez onartu zen, kontzejuen, sindikatuen eta Gobernu beraren akordioarekin. Gainera, ez zen inongo alegaziorik ez errekurtsorik egon, Ultzamako Udalari ez zitzaion euro bakar bat ere kostatu, lana sortu zen, eta batez ere minden arazoa konpontzen zen. Lan guzti hau EH Bilduk pikutara bidalia.

Abertzaleen eraginkortasun ezaren ondorio ekonomikoak ikusten hasten gara. AUK diru-laguntzen baldintzez abisatu zuen eta EH Bilduk beste behin entzungor egin zion gure ohartarazpenei. Eraitza da, gaur egun 260.000 euroko diru-laguntza bat itzultzeko eskatzen diola Gobernuak udalari, planta ezarritako epea baino 6 egun lehenago ixteagatik. Nahita? Ikusitakoaren ondoren, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala. AUtik, horrelako hondamendia eragin duenaren erantzukizunak eskatzen jarraituko dugu.

Kontu hauei buruz EH Bildu taldeko Picabea zinegotziak hau erantzun dio: Ez da egia plantaren kudeaketan interesatua zegoen enpresa baten existentzia ezkutatu dutela, Osoko Bilkura batean hitz egin zen gai honetaz. Ez

da egia EH Bilduk planta itxi zuela, egin zuena bahiketa amaitzea izan zen eta konkursto administrazioari itzuli, jarduerarekin jarraitu ez zuena. Udaletxeko dokumentu bateko okerreko datuengatik ezin zaio errua bota EH Bilduri, eta ezin daiteke esan interes ilunik dagoenik dokumentu hau aurreko legegaldian egin baitzen eta iritsi zirenean egina zegoen jada, dokumentu hau izanik dirulaguntzen epeak nola bete kalkulatzeko erabili dutena.

Jarraian aipatutako zinegotziak aurkako adierazpen hauek erantzuten diren idazki bat irakurri die konporazioko gainerako kideei, honako zentzuarekin: Egoera honen aurrean, batzuek aurrerantza ihes egitea proposatzen jarraitzen zuten, fondorik gabeko zaku batean sakontzea; Ultzamako Udala eta bere biztanleak nora eramanten gaituen ez dakigun abentura berri batean murgiltzea; Bueno bai, seguraski diru publikoarekin beste zartada batera. Guk ez dugu zalaparta handiz saltzen diren eta denbora gutxian arazo iturri agortezin bihurtzen diren makroproiektu bideraezinik aldarrikatzen, ez gara etekinak pribatizatu eta galerak sozializatu nahi dituen dinamika politikoetan sartzen. Arduragabeak deitu ahal gaituzue baina zuen erantzukizunak ulertzeko modua izan da gaur egungo egoera honetara eraman gaituena. Beraz, erantzukizunarekin eta gutxieneko zentzu komun minimoarekin jokatu dugu, dirudienez Comptoseko txostenean ondorioztatzen ez den zer bait.

Horrela, nahiz eta jendea nahasten saiatu, faktura bikoitzak edo faktura gurutzatuak bezalako gai larri batek ez du inongo erlaziorik planta irekita dagoen edo ez, bahituta edo ez; ez du ezer ikustekorik planta errendimendu osoan dagoen eta txatartegirako. Comptoseko Ganbarak deskribatu duen egoera hau beste gauza oso ezberdin bat da, eta egiaztatzen bada oso larria. Egoera hau, AUK garatu zuen kudeaketa sistemarekin eta diru publikoaren kudeaketarekin erlazionatuta dago. Jokaera hauek konfirmatzen badira, ez da izango plantaren bahiketa edo bahiketa eza Ultzamako izena barregarri utziko duena, diru publikoaren kudeaketaren jokaera irregular edo ilegal posiblea baizik. Beraz, ez gaitezen engainatu, eta ez dezagun Ultzamako biztanleria engainatu.

Azkenik, espero dezagun Nafarroako Parlamentuan abiarazi den ikerketa batzordeak gai guzti hau argitzeko balioko duela. Guk ez dugu inongo arazorik izango kolaboratzeko eta egoera argitzea gure ezagueraren neurrian; espero dugu gainerako guztiek gogo bera izango dutela.

Kontu hauei, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti eta Herranz zinegotziek erantzun dute beraiek ere Comptoseko Ganberatik gaia argitzea espero dutela, Bioenergia Ulzama kontzesio hartzailea Ultzamako Udalarekin inongo zer ikusirik ez duen enpresa pribatu bat dela, eta EH Bildu izan zela planta itxi zuena kontzesioa kentzean.

EH Bildu taldeko Martinez Urionabarrenechea Alkateak eta Picabea zinegotziak erantzun diete harrigarria egiten zaiela orain Comptoseko Ganbaran konfidantza izatea, bere momentuan, ez ziren haien esku-hartzearen alde egon, honen inguruko Osoko Bilkurako botazioetan bi aldiz abstenitu baitziren.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martinez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipaturako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

16. Alkatetzaren informazioak.

Ez dago alkatetzaren informaziorik.

17. Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 61.ebazpenetik 95.era.

AU Udal taldeko Erviti zinegotziak 2017/64 zenbakia duen ebazpenari buruz galdetu du, Alkateordekoarenganako Alkatetzaren kompetentzien ordezkariari dagokionari buruz ea ordezkari horren eraginkortasunerako NAO-n argitaratzea beharrezkoa den, eta Idazkariak erantzun dio legedia aplikagarrian (estatuko araudi administratibo orokorra) ordezkariaren eraginkortasuna berehalakoa dela zehazten duela, hau da, onartzen den momentutik (ebazpena), nahiz eta aipaturiko ordezkari hori argitaratzea exijitzen da.

Era berean Gorrantz-Olanoko kontzejuaren kargu, CHEaren kanonari dagokion 17.000 eurko gatuaren inguruan galdetu du, eta urtero ordaintzen den zerbaitekin dela erantzun zaio eta gero NILSATik udalari konpentsatu egiten zaio baina Ofizial Administrazioari argitzeko esango zaiola, eta korreo informatibo bat bidaliko zaie zinegotzie guztiei.

Gainontzean, aipaturiko Alkatetzaren ebazpenak kontuan hartu dira.

18. Eskerak eta Galderak.

1.- AU Udal taldeko Herranz zinegotziak Alkatetzaren eta Gobernu talderi dagokionez bere atsekabea eta protesta adierazi du Ultzamako Udala ez baita Belateko Birjinaren ospakizunaren eguneko aperitiboaz arduratu, Ultzamarrek asko maite eta balioesten duten gertaera bat dela ulertzen eta kontsideratzen dutelako. Martinez Urionabarrenechea Alkateak ez dio kritikari erantzun.

2.- Udalaren iragarpen ofizialetarako komunikabide ezberdinetako argitalpenen gastuen kontuaren gainean, AU Udal taldeko Herranz zinegotziak alkateari adierazi dio bere adierazpenak zuzentzea espero dutela, Idazkariaren txostenaren arabera kontzeptu honi dagokion gastua urte batean lau aldiz bikoizten baita... Beraz frogatuta geratu da bera dela informazioa aldatzen duena.

Kontu honen aurrean Martinez Urionabarrenechea Alkateak erantzun dio berak ez duela gezurrik esaten eta duela gezurrik esan, mundu guztiak

egiten dituela akatsak eta bereziki Idazkaritzako txostenean zifra-akats bat zegoela, horretaz gain Agrupacion Ultzamaren kasuan, bere Boletin informatiboan gastua 8.000 eurokoa zela esaten zuten, egitan horren erdia delarik eta erabat okerra izanik, hori izan zela Diario De Navarrara argitaratzera bidali zuten informazioa eta aipaturiko komunikabideak gainera ez zuten argitaratutako informazioa behar bezala zuzendu, ezta beraiek ere.

3.- Udalaren iragarpen ofizialetarako komunikabide ezberdinetako argitalpenen gastuen kontuaren gainean, AU Udal taldeko Herranz eta Erviti zinegotziek adierazi dute, kontua legea betetzean dagoela, iragarki hoiek argitaratzen diren komunikabideei dagokienez, alkatea eta bere taldea, iragarki hauek zein komunikabidetan argitaratzen diren zehazteko orduan Ultzamarren borondatearen aurka jokatzeko ari da, jokaera ilegala izanik, egunkari hoietako bat ez baita Nafarroan editatzen.